

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 55/2018 Foru Dekretua, azaroaren 6koa. Onestea Basogintza Kudeaketa Jasangarriko Plan Teknikoen (BKJPT) eta Basogintza Kudeaketa Jasangarriko Plan Soilen (BKJPS) edukia, onarpena, indarraldia, berrikuspena eta jarraipena arautzea

Nazioarteko foro askotan jasota geratu den bezala, hala nola Nazio Batuen 1997ko Biltzarrean, baso mota guztien antolamendua, kontserbazioa eta garapen iraunkorra funtsezkoak dira garapen ekonomiko eta sozialerako, ingurumenaren babeserako eta planetako bizitzari eusten dioten sistemarako; gauzak horrela, mendien kudeaketa teknikoaren erantzukizuna haien jabeak diren pertsonena edo erakundeena izango da.

Horretan oinarri hartuz, baso egiaztapen sistema paneuroparra (PEFC) sortu zen, baso lur baten kudeaketa arduratsua dela eta iraunkortasun irizpideak betetzen dituela ziurtatzen duen borondatezko prozesu gisa, betiere prozesu hori ingurumen, ekonomia eta gizarte ikuspegietatik jorratuz. Prozesua aurrera eraman ahal izateko, kanpo agente independente batek baso kudeaketa iraunkorreko planetan ezarritako irizpideak, parametroak edo adierazleak ebaluatzen ditu; plan horiek mendietako pertsona edo erakunde titularrek aurkeztu behar dituzte.

Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen eta lurralde historikoetako foru organoen arteko harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7. artikulua a) letrako 9. zenbakian ezarritakoaren arabera, foru organoei dagokie mendi, aprobetxamendu, baso zerbitzu, abere bide eta larreen arloko eskumen eskusiboa, betiere Autonomiaren Estatutuaren 10.8. artikulua ezarritakoaren ildotik, bai eta baso zaintza eta kontserbazioarena eta nekazaritza eta baso lurren hobekuntzarena ere. Hori dela eta, Arabako Foru Aldundiaren sailak 2015-2019ko legegintzaldirako zehazten dituen Diputatu Nagusiaren uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretuak Nekazaritza Sailari ematen dizkio, besteak beste, mendei eta baso aprobetxamenduei eta zerbitzuei buruzko eskumen arloak eta funtzioak.

Testuinguru horretan, baso kudeaketa iraunkorraren zabalkunde eta sustapena zaintzeko, herri administrazioek mendi guztien antolamendua bultzatuko dute teknikoki eta ekonomikoki, iraunkorki kudeatuak izan daitezten, betiere azaroaren 21eko 43/2003 Legeak, mendiei buruzkoak, bere 32. artikuluan eta hurrengoetan eta martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauak ezarritakoarekin bat etorritik. Zehatzago, aipatutako arauaren V. tituluak mendien kudeaketa eta haien baliabideen aprobetxamendua arautzen ditu, mendi eta baso lur mota guztien antolamendu iraunkorraren printzipio orokorretik abiatuz, betiere antolamendu plan edo proiektuen eta kudeaketa planen bitartez. Eta 34.3. artikuluan eranstean du antolamendu planen edo basoko kudeaketa plan iraunkorren bidez araututako mendietatik lortutako egur aprobetxamenduak izan ahalko direla baso egiaztapeneko sistemek eskaintzen dituzten berme prozeduren xede.

Hala, Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 14ko 61/2010 Foru Dekretuaren bidez, foru egoitzan onartu zen Arabako Lurralde Historikoan baso kudeaketa iraunkorreko plan teknikoaren araubidea. Plan horiek, indarraldi mugagabearekin mendiaren araubide integrala zehazten duten antolamendu plan teknikoaren aldean, aldi baterako baso kudeaketako lanabes gisa egituratzen dira; beharrezko agiri teknikoak dira, hala badagokio, geroago baso egiaztapen iraunkorra lortzeko, eta mendiaren kudeaketa eta ustiapen partziala arautzen dute, orain eta etorkizunean funtzio ekologiko, ekonomiko eta sozial garrantzitsuak zaintzeko, bestelako ekosistemei kalterik eragin gabe.

Hori bai, gaur egun, planifikatzeko eta, ondorioz, ahalik eta baso azalerarik handienarekin baso kudeaketa egiazatzeko helburuak berekin dakar orain arte baso kudeaketa iraunkorreko planetan eskatutako edukiak aldatu edo, hala badagokio, eguneratu beharra; izan ere, egiazta-pen prozesua gero eta azkarrago bideratu behar da eta, gainera, baso kudeaketan eszenatoki aldaketak izango dira, bai arauen aldetik bai laguntza tresnen aldetik bai laguntza tresna berrien aldetik. Gauzak horrela, gomendagarria da Arabako Lurralde Historikoan baso kudeaketa iraunkorreko plan teknikoak berriro ere erregulatzea.

Gainera, dekretu berri horren bidez, Arabako Lurralde Historikoko azalera txikiko mendien plangintzaren modalitate erraztu berri bat ere gehitu da, "Baso Kudeaketa Iraunkorreko Plan Soialak" izenarekin; dagoeneko existitzen diren Baso Kudeaketa Iraunkorreko Plan Teknikoen helburu berdina daukate, baina modu jarraituan antolatutako azalera 20 hektarea baino txikiagoa edo modu ez jarraituan antolatutako azalera 35 hektarea baino gehiagokoa den baso finkei dagokie.

Dekretuaren proiektua jendaurreko entzunaldiko izapidearen pean jarri ondoren 2017ko apirilaren 26ko ALHAOn argitaratuta, Euskadiko Biologoek Elkargo Ofizialak eta Arabako Basogintza Elkarteak alegazioak aurkeztu zituzten. Horiek eta Foru Aldundiaren Nekazaritza Saileko Mendi Zerbitzuak horien gainean egindako txostena ikusita, hasierako testua egokitu zen.

Dekretu honen tramitazioan erregulazio egokiko printzipioei eutsi zaie, betiere urriaren 1eko 39/2015 Legeak, herri administrazioen administrazio prozedurari buruzkoak, ezarritakoarekin bat etorritz. Hala, azaldutako aurrekarietan, behar beste justifikatu da kudeaketa iraunkorreko baso planen erregulazio berrirako premia; gainera, arauzko jarduketa proportzionatua da, erdietsi nahi den helburua lotzeko gutxienez mugatzen delako: edukia zehaztea, onartzea, indarrean egotea, berrikustea eta plan horien jarraipena egitea.

Halaber, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da, nahikoa justifikatuta gelditzen delako ordenamendu juridikoan sartzen dela eta hura ematen duen organoa gaituta dagoela.

Gardentasun printzipioari dagokionez, hura ez da urratu, aldeztu aurretik azaldu den bezala, jendaurreko entzunaldi eta informazio izapidea bete delako.

Efizientzia printzipioari gagozkiola, proposatutako arautze horrek, duen izaera dela-eta, ez dakarkie herritarrei ez administrazio karga osagarrikerik ez premiagabekorik, ez baliabide publikoen kontsumo handiagorik.

40/1999 Foru Dekretuak onartutako araudi organikoaren 23. artikulua ezarritakoaren arabera, adierazi beharra dago foru dekretua Arabako Foru Administrazioaren Aholku Batzordearen aldeztu aurretiko iritzia pean jarri dela; gauzak horrela, organo horrek bere irizpen proposamen egindako funtsezko oharren arabera aldaketak egin dira testuan eta, beraz, iradokitako aldaketak testuan txertatu dira.

Hori dela bide, Nekazaritzako foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaur egindako bilkuran aldeztu aurretik eztabaidatuta, testua aipatutako batzordearen irizpenarekin bat datorrenez gero, honakoa

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Xedea

Foru Dekretu honen xedea da baso kudeaketa iraunkorreko plan tekniko (aurrerantzean BKIPT) eta baso kudeaketa iraunkorreko plan soilen (aurrerantzean BKIPS) edukia, onarpena, indarraldia, berrikuspene eta jarraipene arautzeko xedapen orokorrak ezartzea.

2. artikulua. Kontzeptua eta aplikazio eremua

1. BKIPT eta BKIPSak agiri teknikoak dira baso azalera batean jarraitu nahi den kudeaketaren araubidea antolatzen dutenak denboran eta espazioan. Plan horiek azalera horren kudeaketa bermatu behar dute, baso sistemen iraunkortasuna bermatzen duten basogintza tekniken bidez baso produktuak lortu ahal izateko, iraunkortasunari begira izan daitezkeen askotariko funtzioak integratuz.

2. Dekretu hau aplikagarria izango da Arabako Lurralde Historikoko mendi eta baso lurretan, publikoak edo pribatuak izanagatik ere, Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauak ezarritakoaren arabera. Hori guztia oinarritzko legeriak ezarritako mendi sailkatu eta babesleak antolatzeke derrigorrezkotasunari kalterik egin gabe.

3. BKIPTak edozein baso eremuri dagokionez prestatu ahalko dira eta BKIPSak, baso planifikaziorako lanabes oinarritzokoagoak izanik, bakar-bakarrik erabili ahalko dira titular batek jarraian 20 hektarea baino gutxiago edo jarraitu gabe 35 hektarea baino gutxiago dituen azaleren kudeaketa planifikatzeko.

3. artikulua. Helburua

BKIPT eta BKIPSen helburua izango da baso azaleren kudeaketa erraztea, mendiaren iraunkorra ziurtatzea eta haien errentagarritasuna hobetzea, betiere aprobetxamenduak kudeaketa iraunkorreko ingurumen eta gizarte irizpideekin bateratuz eta Normalizazio eta Egiaztapeneko Espainiar Elkarteko arauetan baso kudeaketa iraunkorrerako finkatutako irizpideak eta adierazleak betez (AENOR).

4. artikulua. Planen edukia

1) Baso kudeaketa iraunkorreko plan teknikoen edukia.

BKIPTek honako edukiak izan beharko dituzte, l. eranskinean modu egituratuan jasotzen direnak:

a) BKIPTen datu orokorrak, betiere teknikari egilearen datuak eta kudeaketa planarenak (izenburua, lantaldea, idazketa data, berrikuspen data...) eta kudeaketa helburua azalduz.

b) Legezko deskribapena, administratiboa eta partzelaziokoa. Honako pertsona hauen datuak jaso beharko dira: planaren titularra, finken jabea eta kudeatzailea (azken bi horiek bakarrik lehenengoaren desberdinak badira); planaren titulartzat joko da baso kudeaketa eta ustiapenaren inguruan erabakiak eta exekuzioak hartzen dituen pertsona; jabetzat joko da erregistroaren edo, halakorik ezean, katastroaren datuen arabera lurren jabetza duen pertsona; finkaren kudeatzaileztat joko da pertsona titularra edo helburu horretarako berariaz kontratatutakoa (Mendiei buruzko Legearen 23. artikulua). Halaber, agiri bidez egiaztatu beharko da titular, jabe edo kudeatzailearen izaera.

c) Finka jarduketa unitateetan edo azalernetan banatuko da eta horietan modu homogeneoan jardun ahalko da. Katastro, erregistro eta jarduketa unitateen arteko korrespondentzia islatuko da, katastroaren fitxak eta jabetza erregistroaren informazio ohar soila erantsiz. Korrespondentzia horretan edozein alderdi azpimarragarri adieraziko da, azalernetan, titulartatean eta abarretan izan daitezkeen desadostasunei dagokienez, egoera hori justifikatzeko egokitzat jotzen den dokumentazioa erantsiz.

d) Ingurune fisiko eta naturala deskribatzeko datu orokorrak, klimaren, orografiaren, hidrografiaren, multzo begetalen, habitaten, floraren eta faunaren ezaugarri nagusiak adieraziz eta babes figuraren pean jasotako elementuak berariaz aipatuz (zuhaitz bereziak, baso suteak, balio kultural eta historikoak, aisialdi jarduerak, ehiza jarduerak, abeltzaintza jarduerak, planaren titularrak zuzenean kudeatzen dituenak). Gainera, mendiaren legezko egoeraren deskribapen orokorra egingo da, enklabeak, okupazioak eta zortasunak adieraziz; orobat, egoera sozioekonomikoa ere deskribatuko da, bide azpiegituren berri emanez.

e) Jarduketa unitateen deskribapen fitxa. Jarduketa unitateen daturik garrantzitsuenak deskribatu eta horiek baso egoerari buruzko datuekin osatuko dira, bai eta baso zuhaizdunen erabilera nagusia duten inbentario unitateen planifikazioarekin ere.

f) BKIPT indarrean egon bitartean, jarduketan, intzidentzien eta erregistroen jarraipena.

g) Kartografia. Lursailen egoeraren plano orokorra sartuko da eskala egokian, bai eta BKIPTn sartutako katastro lursailak bereizten dituen plano katastrala eta eskala zehatzeko plano topografikoa ere; azken plano horretan, lursailen mugak, jarduketa unitateen banaketa, ibilguak eta azpiegiturak zehaztuko dira.

h) Sinadurak. BKIPTen titularrak planaren titularraren datuen eta baso kudeaketa iraunkorreko jarraibideen atalean izenpetu beharko du; beraz, "Euskal Autonomia Erkidego mailan baso kudeaketa iraunkorreko adierazle" en azterlanean edo ondoren onar daitekeen eta aurreko hori Arabako Lurralde Historikoan ordeztzen duen bestelako agiriren batean jasotako irizpideei jarraitzeko konpromisoa hartzen du. Pertsonal tekniko idazleak planaren idazlearen datuen atalean nahiz baso kudeaketa iraunkorreko jarraibideetan sinatu beharko du.

i) Ingurumen eraginari buruzko azterketa, manuzkoa den mailan (otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 49. artikulua eta I.C.3.2. eranskina).

2) Baso kudeaketa iraunkorreko plan soilen edukia.

BKIPSek gutxienez honako eduki hauek ezarri beharko dituzte, II. eranskinean jasotakoaren arabera:

a) BKIPSen datu orokorrak, betiere teknikari egilearen datuak eta kudeaketa planarenak (izenburua, lantaldea, idazketa data, berrikuspen data...) eta kudeaketa helburua azalduz.

b) Legezko deskribapena, administratiboa eta partzelaziokoa. Honako pertsona hauen datuak jaso beharko dira: planaren titularra, finken jabea eta kudeatzailea (azken bi horiek bakarrik lehenengoaren desberdinak badira); planaren titulartzat joko da baso kudeaketa eta ustiapenaren inguruan erabakiak eta exekuzioak hartzen dituen pertsona; jabetzat joko da erregistroaren edo, halakorik ezean, katastroaren datuen arabera lurren jabetza duen pertsona; finkaren kudeatzailetzat joko da pertsona titularra edo helburu horretarako berariaz kontratatutakoa (Mendiei buruzko Legearen 23. artikulua). Era berean, agiri bidez egiaztatu beharko da jabeak planaren titularrari egindako lagapena.

c) Finka jarduketa unitateetan edo azaleretan banatuko da eta horietan modu homogeenan jardun ahalko da. Katastro, erregistro eta jarduketa unitateen arteko korrespondentzia islatuko da, katastroaren fitxa grafikoak eta deskribatzaileak eta jabetza erregistroaren informazio ohar soila erantsiz. Korrespondentzia horretan edozein alderdi azpimarragarri adieraziko da, azaleretan, titularitatean eta abarretan izan daitezkeen desadostasunei dagokienez, egoera hori justifikatzeko egokitzat jotzen den dokumentazioa erantsiz.

d) Ingurune fisiko eta naturala deskribatzeko datu orokorrak, klimaren, orografiaren, hidrografiaren, multzo begetalen, habitaten, floraren eta faunaren ezaugarri nagusiak adieraziz eta babes figuraren pean jasotako elementuak berariaz aipatuz (zuhaitz bereziak, baso suteak, balio kultural eta historikoak, aisialdi jarduerak, ehiza jarduerak, abeltzaintza jarduerak, planaren titularrak zuzenean kudeatzen dituenak). Gainera, mendiaren legezko egoeraren deskribapen orokorra egingo da, enklabeak, okupazioak eta zortasunak adieraziz.

e) Deskribapena osatzeko, planifikazioari buruzko datuak jasoko dira.

f) Baso kudeaketa iraunkorreko plan soilaren indarraldian zehar, jarduketan, intzidentzien eta erregistroen jarraipena.

g) Katastroaren fitxa grafikoak jasoko dira eta Mendi Zerbitzuak interesekotzat jotzen dituen planoak eskatu ahalko ditu.

h) Sinadurak. BKIPSen titularrak planaren titularraren datuen eta baso kudeaketa iraunkorreko jarraibideen atalean izenpetu beharko du; beraz, "Euskal Autonomia Erkidego mailan baso kudeaketa iraunkorreko adierazle" en azterlanean edo ondoren onar daitekeen eta aurreko hori Arabako Lurralde Historikoan ordeztzen duen bestelako agiriren batean jasotako irizpideei jarraitzeko konpromisoa hartzen du. Pertsonal tekniko idazleak planaren idazlearen datuen atalean nahiz baso kudeaketa iraunkorreko jarraibideetan sinatu beharko du.

i) Ingurumen eraginari buruzko azterketa, manuzkoa den mailan (otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 49. artikulua eta I.C.3.2. eranskina).

5. artikulua. Planak egitea, izapidetzea eta onartzea

1. BKITak eta BKIPSak prestatzeko lanak unibertsitate mailako basogintza titulazioa duten profesionalak egin beharko dituzte eta, natura parkeen kasuan, natura baliabideak antolatzen dituzten planetara eta erabilera eta kudeaketa plan zuzentzaileetara egokitu beharko dituzte; orobat, Natura 2000 Sareko espazio babestuei dagokienez, haien kudeaketa lanabesak aintzat izango dituzte eta erreferentziatzat izango dute, hala badagokio, mendia kokaturik dagoen eremuko baso baliabideen antolamendu plana. Halaber, mehatxatutako flora eta fauna espezieak edo babes neurri zehatzak behar dituzten espezieak babestera bideratutako irizpideak eta arauak jasoko dituzte, betiere interes bereziko eremuetako kudeaketa planei men eginez.

2. Interesdunek BKITak eta BKIPSak aurkeztuko dituzte Arabako Foru Aldundiaren Mendi Zerbitzuan, betiere urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearenak, bere 16.4. artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe. Ale bat paperezko formatuan aurkeztuko da eta, hala badagokio, haren kopia euskarri informatikoan, betiere artikulatu honen III. eranskinean zehaztutako aurkezpen arauak jarraituz.

3. BKITek edo BKIPSek beste lurralde historiko edo probintzia batzuetan kokaturik dauden jarduketak unitateak izanez gero, Arabako Lurralde Historikoko baso administrazioak izapidetu eta, hala badagokio, onartu ahalko du bere eskumeneko lurralde eremuan dauden jarduketak unitateen planaren zatia.

4. BKITak eta BKIPSak onartzeko, baso masen iraupena, biodibertsitatearen eta natura ingurunearen mantentzea eta bideragarritasun tekniko-ekonomikoa hartu beharko dira kontuan. Era berean, aintzat hartuko da ea Europako basoak babesteko ministerioen arteko konferentziak onartutako printzipioen arabera egokitu diren ala ez.

5. BKIPTak eta haien dokumentazio oso eta zuzena Mendi Zerbitzuan aurkezten denetik sei hilabeteko epean gehienez ere, horiek ebatziko dira Arabako Foru Aldundiaren mendi arloan eskuduna den Sailaren titularraren foru agindu bidez.

BKIPSei dagokienez, horiek ere ebatziko dira Arabako Foru Aldundiaren mendi arloan eskuduna den Sailaren titularraren foru agindu bidez, gehienez ere hiru hilabeteko epean, betiere plana eta haren dokumentazio osoa eta zuzena Mendi Zerbitzuan aurkezten denetik zenbatzen hasita.

6. Epe hori igarotzen bada eta berariazko ebazpenik jakinarazi ez bada, eskaerak baietsiak izan direla ulertuko da. BKIPT edo BKIPS bat onartzen ez denean, hori hala izateko arrazoiak jasoko dira eta zuzenketak egiteko eta ondoren onartzeko beharrezkoak diren aldarazpenak iradokiko dira.

7. Mendi Zerbitzuan indarreko kudeaketa planen erregistro eguneratua izango da.

6. artikulua. Planen indarraldia

1. Oro har, BKIPT eta BKIPSen indarraldia 20 urtekoa izango da.

2. Bi plan mota horien indarraldia eten ahalko da Arabako Foru Aldundiaren Mendi Zerbitzuan ez-betetze larriak antzematen dituen edo horietan jasotako jarduketak jakinarazten ez zaizkionean.

7. artikulua. Planak berrikustea eta aldatzea

1. Interesdunek hala eskatuta, BKIPT eta BKIPSak berrikusi ahalko dira indarraldia amaitu aurretik, baldin eta hori justifikatzen duen arrazoirik badago.

BKIPT eta BKIPSak berrikusteko onarpen prozedura plan mota bakoitzean ezarritako berbera izango da.

2. BKIPT eta BKIPSen titularitate, azalera edo izaera aldaketak Arabako Foru Aldundiaren Mendi Zerbitzuan jakinarazi beharko zaizkio.

Lursailak eskualdatuz gero, titular berriak Mendi Zerbitzuari jakinarazi beharko dio aurreko titularraren lekuan subrogatzen dela BKIPT eta BKIPSen betebeharrei dagokienez, betiere zirkunstantzia hori izan eta sei hilabeteko epean.

3. BKIPT eta BKIPSetan ezarritako jarduketaren bat funtsean aldatuz gero, hori Mendi Zerbitzuari jakinarazi beharko zaio. Arabako Foru Aldundian mendien gaian eskuduna den sailaren zuzendaritzaren ebazpen bidez ebatziko da gehienez ere hiru hilabeteko epean; ebazpen horretan adieraziko da ea desbideraketa onargarri eta justifikagarritzat jotzen den edo planaren indarraldia eteten den.

4. BKIPT eta BKIPSetan ezarrita ez dauden eta ezinbesteko kasuek, istripu naturalek, baso gaixotasunek, premiazko neurriak dakartzaten ezbeharrek edo basoko suteen ondoriozkoek egindako aprobetxamenduak apartekotzat joko dira eta, gainerako aprobetxamenduetan bezala, Mendi Zerbitzuaren baimena beharko dute; gauzak horrela, titularrak aprobetxamendu horien informazioa erregistratu beharko du planaren jarraipen formularioetan.

5. Aurreko ataletan jasotako kasuak jakinarazteko betebeharra gorabehera, indarreko BKIPT edo BKIPS baten titularrak baso administrazioari eman beharko dio bertan jasotako jarduketaren gaineko informazioa, hala eskatzen zaionean, betiere haren jarraipena egokia dela egiaztatzeko.

Baldintza hori bete ezean, planaren indarraldia eten ahalko da.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Dekretu hau indarrean sartu aurretik onartutako planak automatikoki luzatu direla ulertuko da, harik eta dekretu honen 6. artikulua finkatutako 20 urteko indarraldia bete arte.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Dekretu honi kontrajartzen zaizkion larrun handiago edo txikiagoko xedapen guztiak indargabetzea eta, bereziki, Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 14ko 61/2010 Foru Dekretua, haren bidez, baso kudeaketa iraunkorreko plan teknikoaren edukia, onarpena, berrikuspenera eta jarraipena arautzen dituzten xedapen orokorrak ezartzen baitziren.

AZKEN XEDAPENA

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko azaroaren 6a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE

ERANSKINA**I. ERANSKINA. Baso kudeaketa iraunkorreko plan teknikoen edukia (BKIPT)****1. DATU OROKORRAK**

- 1.1. Teknikari egilearen datuak
- 1.2. Kudeaketa helburu den kudeaketa planaren datuak

2. KUDEAKETA PLANAREN LABURPENTAULA**3. KUDEAKETA PLANA OSATZEN DUTEN BESTELAKO AGIRIAK****4. DESKRIBAPEN LEGALA, ADMINISTRATIBOA ETA PARTZELAZIOKOA**

- 4.1. Titularitate eta jabetza datuak
- 4.2. Kudeatzailearen datuak (titularra ez bada)
- 4.3. Azalera mota
- 4.4. Erregistro, katastro eta partzelazio datuak
 - 4.4.1. Erregistro datuen taula
 - 4.4.2. Erregistro, katastro eta jarduketa unitateen arteko korrespondentzia taula
- 4.5. Partzelazio datuak
 - 4.5.1. Lurraren erabileren laburpen taula
 - 4.5.2. Baso espezieen laburpen taula
 - 4.5.3. Baso azaleraren azpikategorien laburpen taula
- 4.6. Enklabeak, zortasunak eta okupazioak

5. KUDEAKETA PLANARNE DATU ZEHATZAK**5.1. Klima**

- 5.1.1. Menditik hurbilen dauden estazio meteorologikoen klima datuak
- 5.1.2. Batez besteko klima datuak jarduketa unitateetan

5.2. Habitata**5.3. Landaretza****5.4. Fauna****5.5. Hidrografia eta ibarreko landaretza****5.6. Bide azpiegiturak****5.7. Ehiza jarduera****5.8. Abeltzaintza jarduera****5.9. Aisialdi balioak****5.10. Ukitutako ondare kultural edo historikoa****5.11. Basoko suteak izateko arriskuak****6. ANTOLAMENDUAREN EGITURA****7. JARDUKETA UNITATEEN DESKRIBAPENA****7.1. Alderdi orokorrak****7.2. Datu fisiografikoak****7.3. Lurzorua**

7.4. Basoaren egoera

7.4.1. Basoko inbentarioa

7.4.1.1. Izakinak

7.4.1.2. Oin txikien birsorkuntza (diametroa < 7,5 cm)

7.4.1.3. Baso estalduraren egoera

7.4.1.4. Egur hila

7.5. Plangintza

8. BESTELAKO OHAR INTERESGARRIAK

9. JARRAIPENA BKIPTEN INDARRALDIAN ZEHAR

9.1. Jarduketa, sarrera eta gastuen jarraipen taula

9.2. Istripuen erregistroa

1. DATU OROKORRAK

1.1. Teknikari egilearen datuak

Izena eta abizenak
Enpresaren izena
Lanbide titulazioa
Elkargoko kide zenbakia
Posta elektronikoa
Sinadura

1.2. Kudeaketa planaren datuak

BKIPTaren izenburua	
BKIPTaren zenbakia	Berrikuspen zenb.
Idazketa data	
Berrikusi den data:	Onarpenaren data
Indarraldia	
Kudeaketaren xedea	
Kokalekua:	Lurralde Historikoa
Titularraren izena	Udalerria (edo udalerririk)
Titulartasun mota:	Banakakoa
Kudeatzailearen izena (titularra ez bada)	Taldea
Kudeaketa mota:	Publikoa, sailkatu gabekoa
	EPM zk.
	Pribatua
	Publikoa

2. KUDEAKETA PLANAREN LABURPEN TAULA

Finka jarduketa unitateetan edo azaleretan banatuko da eta horietan modu homogeneoan jardun ahalko da. Katastro, erregistro eta jarduketa unitateen arteko korrespondentzia islatuko da, katastroaren fitxak eta jabetza erregistroaren informazio ohar soilaren erantsiz. Korrespondentzia horretan edozein alderdi azpimarragarri adieraziko da, azaleretan, titularitatean eta abarretan izan daitezkeen desadostasunei dagokienez, egoera hori justifikatzeko egokitzat jotzen den dokumentazioa erantsiz (ikus 4.1.c atala).

Jabetza Erregistroaren ohar soilak		Katastroaren datuak					BKIPTaren datuak				
EID	Izena	Azal. (ha)	Udalerria	Poligonoa	Lurzatia	Azp/Esp	Azal. (ha)	JU-IU	Espezia/Erabilera*	Urtea	Azal. (ha)

Oharra: Jabetza Erregistroaren ohar soilak EID (erregistro unitate bakoitza identifikatzea eta katastro erreferentziara lotzea ahalbidetzen duen erregistro automatikoko zenbakia), Izena (finkaren izena), Azal. (ha-n erregistratutako azalera), Katastroaren Datuak: Udalerria, Poligonoa, Lurzatia, Azp/Esp. (katastroaren azpurratua edo Signac-en esparrua), Azal. (ha-n erregistratutako azalera), BKIPTaren Datuak: JA-IU (jarduketa unitatea-inbentario unitatea), Espezia/Erabilera* (espezie nagusia), Urtea (landaketa urtea) eta Azal. (benetako azalera hektareetan).

*Erabilera basokoa ez bada, espezie nagusiaren orde ez erabilera adierazten da.

3. KUDEAKETA PLANA OSATZEN DUTEN BESTELAKO AGIRIAK*

*Atal honetan kudeaketa plana osatzen duten gainerako agiriak aipatzen dira, adibidez "Euskal Autonomia Erkidego mailan Baso Kudeaketako Adierazleak eta Baso Ibilbideak (Erregio edo Lurraldekoak)", eskualdeko azterlan sozio-ekonomikoa...

4. DESKRIBAPEN LEGALA, ADMINISTRATIBOA ETA PARTZELAZIOKOA

4.1. Titularitate eta jabetza datuak

TITULARRA	Erabakiak hartzeaz eta baso kudeaketa eta ustiapeneko ekexuzioak aurrera eramateaz arduratzen den pertsona. Titularra dela egiaztatuta behar da agiri bidez. (ikus 4.1.b atala)	
Izena eta abizenak/sozietatearen izena		
IFZ / NAN	Nekazaritza ustiapeneko kodea	Telefonia
Bizilekuaren helbidea	Udalerrria/Probintzia	
Posta kodea		
Posta elektronikoa		
Titularitasun eta jabearen arteko erlazioa		
Sinadura		
JABETZA *	Erregistro datuen edo, halakorik ezean, katastrokoen arabera lurren jabea den pertsona. Jabea dela egiaztatuta behar da agiri bidez. (ikus 4.1.b atala)	
Jabetza zenb. izena eta abizenak/sozietatearen izena	IFZ / NAN	
Bizilekuaren helbidea	Telefonia	
Posta kodea	Udalerrria/Probintzia	
Posta elektronikoa		

*Jabe desberdinen kopurua adina taula bete behar dira.

4.2. Kudeatzailearen datuak (titularra ez bada)

KUDEATZAILEA	Finkaren kudeatzailea, titularra edo helburu horretarako berariaz kontratatutako pertsona (Mendiei buruzko Legearen 23. art.). Kudeatzailea dela egiaztatuta behar da agiri bidez.	
Izena eta abizenak/sozietatearen izena		
Bizilekuaren helbidea	Telefonia	
Posta kodea	Udalerrria/Probintzia	
Posta elektronikoa		

4.3. Azalera mota

Jarraitua	Jarraitu gabea
-----------	----------------

4.4. Erregistro, katastro eta partzelazio datuak

4.4.1. Erregistro datuen taula

EID	Finka	Erreg. Azal.	Jab. Erreg.	Udale.	Liburukia	Liburua	Orrialdea	Finka zenb.	Ins. zenb.	Jabegoa	Jab.	%
-----	-------	--------------	-------------	--------	-----------	---------	-----------	-------------	------------	---------	------	---

Oharra: EID (erregistro unitate bakoitza identifikatzea eta katastro erreferentziara lotzea ahalbidetzen duen erregistro automatikoko zenbakia), Finka (finkaren izena), Erreg. Azal. (hektareetan erregistratutako azalera), Jab. Erreg. (Jabetza Erregistroa eta udalerrian bat baino gehiago egonez gero, haren zenbakia), Udale (Udalerria), Liburukia/Liburua/Orrialdea/Finka zenb./Ins. zenb. (Inskripzio zenb.), Jabetza Erregistroaren datuak, Jab. (Adierazi behar da ea jabea individual edo zatiugabe gisa azaltzen den, jabea (EIDren jabea) eta % (EIDren jabetza %).

4.4.2. Erregistro, katastro eta jarduketa unitateen arteko korrespondentzia taula

Erregistroa	Katastroa				Plan teknikoa				Informazio osagarria						
	Udalerría	Poligonoa	Lurzatia	Azp/Esp	Katastro azal. (ha)	JU	IU	Ingurua	Erabilera	Esp.	Urtea	Jarduketa azal. (ha)	E/M	J/G	Jab.

Oharra: EID (erregistro unitate bakoitza identifikatzea eta katastro erreferentziara lotzea ahalbidetzen duen erregistro automatikoko zenbakia), Udalerria, Poligonoa, Lurzatia, Asp/Esp (kastroko azpiurzatia edo Signac-eko esparrua), Katastro Azal. (kastro azalera hektareetan), JU (jarduketa unitatea), IU (inbentario unitatea), Ingurua, Erabilera, Esp. (Especiea), Urtea (landaketa urtea), Jarduketa azal. (jarduketa azalera hektareetan), E/M (mendi pribatuetarako baino ez: E: mendi publiko batean enklabatu. M: Mendi publiko batekin mugakidea, J/G (jabea/gozameduna, jabetza solia/jabetza osoa/gozameduna, jabea (jabea, gozamedu bat baino gehiago egonez gero, adierazi nortzuk diren).

Aurreko korrespondentzien eta aurkeztutako justifikazio agiriaren artean aurkitutako desadostasunak:

4.5. Partzelazio datuak

4.5.1. Lurraren erabileren laburpen taula

Lurzoruaren erabilera	Azalera (ha)	Okupazio ehunekoa, %
GUZTIRA:		

4.5.2. Baso espezieen laburpen taula

Baso espeziea	Azalera (ha)	Okupazio ehunekoa, %
GUZTIRA:		

4.5.3. Baso azaleraren azpikategorien laburpen taula

Baso azalera guztira (ha):	Baso azalera zuhaizduna (ha):
	Baso azalera zuhaizduna (%):
	Baso azalera zuhaitzik gabekoa (ha):
	Baso azalera zuhaitzik gabekoa (%):

4.6. Enklabeak, zortasunak eta okupazioak

--

5. KUDEAKETA PLANARNE DATU ZEHATZAK

5.1. Klima

5.1.1. Menditik hurbilen dauden estazio meteorologikoen klima datuak

JU	Estazioar en izena	Euria, urteko batez bestekoa (mm)	Batez besteko T (°C)	Tmin. abs. (°C)	Tmax abs. (°C)	Batez besteko T min. hilik hotzenean (°C)	Batez besteko T max. hilik beroenean (°C)

Oharra: JU (jarduketa unitateak), Estazio meteorologikoen izena, batez besteko euria (euria, urteko batez bestekoa estazioan). Batez besteko T (urteko batez besteko tenperatura estazioan gradu zentigradoetan), T min abs (urteko tenperatura minimo absolutua gradu zentigradoetan estazioan), T max abs (urteko tenperatura maximo absolutua gradu zentigradoetan estazioan), Batez besteko T min. hilik hotzenean (batez besteko urteko tenperatura minima gradu zentigradoetan estazioan) eta batez besteko T max. hilik beroenean (batez besteko urteko tenperatura maximoa gradu zentigradoetan estazioan).

5.1.2. Batez besteko klima datuak jarduketa unitateetan

JU	Euria, urteko batez bestekoa (mm)	Batez besteko urteko tenperatura (°C)

5.2. Habitata

Interes komunitarioko habitatak, habitatei buruzko zuzentaruaren arabera		BAI	EZ
Habitataren deskribapena			
Zaintzera bideratutako neurriak			
Babestutako natura espazioak (parke naturala, biotopo babestutak, Natura 2000 Sarea...)		BAI	EZ
Indarreko planifikazio tresna (BNAP, EKPZ eta antzekoak)			
Planaren jarduketak ESNen arautegira eta helburuetara egokitzea			
Espazio naturalak edo erdinaturalak (ha)**			

** Baso espazio erdinaturalak jotzen da landaketa artifizialik ez duen azalera; era berean, baso espazio naturaltzat jotzen da gizakiak aldatu ez duen azalera.

5.3. Landaretza

Baso habitatak/Multzo begetalak	
Zuhaitz espezieak	
Zuhaixka espezieak	
Mehatxatutako flora espezieak*	BAI
Espezieen identifikazioa	EZ
Kudeaketa plana eta arautegi aplikagarria	
Kudeaketa eta kontserbazio neurri aplikagarriak	
Zuhaitz nabarmenak	BAI
Espezieak eta kokapena	EZ

*Mehatxatutako espezieetat jotzen dira Mehatxatutako Espezieen Euskal Katalogoan sartutakoak, bai eta Habitetei buruzko Zuzentzararen II. eranskinean jasotakoak ere. Mehatxatutako espezieen edo interes komunitarioko habitaten presentziak behartuko du jarduketa unitate bakoitzean duten presentzia zehaztera eta hurrengo atala betetzera (presentziak nola eragiten dijon unitatearen kudeaketari eta baso lanen burutzapenari).

5.4. Fauna

Fauna espezieak	
Mehatxatutako fauna espezieak*	BAI
Espezieen identifikazioa	
Kudeaketa plana eta arautegi aplikagarria	
Kudeaketa eta kontserbazio neurri aplikagarriak	

5.5. Hidrografia eta ibarreko landaretza

JU	Arroa	Azpiarroa	Ibarreko basoa	Azal.* (ha)	Oharra (ibaiak, errekek eta ibarreko basoak)

*Ibarreko basoen azalera hektareetan.

5.6. Bide azpiegiturak

Errepede sareko dentsitatea guztira (ml/ha):			
Sarrera iraunkorra duten pisten %:			
Ona	Txarra		
Hala moduzkoa	Oso txarra		
*Bide sarearen egokitzapena erabilera nagusira:	BAI	EZ	
Oharrak:			

* EAEko 1994-2030 Baso Planaren arabera, baso azalera trinkorako pista nagusien 15m/ha-ko dentsitatea aurreikusten da eta 60 m/ha-koa bigarren mailako pistetan.

5.7. Ehiza jarduera

Titular kudeatzailea ehiza jardueraren arduraduna da:		BAI*	EZ
* Aurreko taulan "BAI" zehaztu baduzu, hurrengo taula bete behar duzue.			
Populazioen inbentarioa edo zentsua:			
Indarreko ehiza planik badago:	BAI	EZ	
Zama gaitasunaren kalkulua:	Potentziala:	Benetakoa:	
*Egokia al da zama lurraldearekin alderatuta:	BAI	EZ	
Oharrak:			

* Zama lurraldearen aldean egokia dela ziurtatzen da, baldin eta ehiza zama potentziala baino handiagoa ez bada.

5.8. Abeltzaintza jarduera

Titular kudeatzailea abeltzaintza jardueraren arduraduna da:		BAI*	EZ
* Aurreko taulan "BAI" zehaztu baduzu, hurrengo taula bete behar duzue; bestela ez da beharrekia izango.			
Populazioen inbentarioa edo zentsua:			
Zama gaitasunaren kalkulua:	Potentziala:	Benetakoa:	
*Egokia al da zama lurraldearekin alderatuta:	BAI	EZ	
Mendian bazkatzen den gandua saneamendu kanpainarik pasatu al du?	BAI	EZ	
Oharrak:			

* Zama lurraldearen aldean egokia dela ziurtatzen da, baldin eta abeltzaintza zama potentziala baino handiagoa ez bada.

5.9. Aisialdi balioak

Ba al dago aisialdi baliorik (aisialdi eremuak, mendi bideak, bide berdeak...)?	BAI	EZ
Aisialdi balioen identifikazioa (aisialdi eremuak, mendi bideak, bide berdeak...):		
Kokalekua:		
Kudeaketa neurri aplikagarriak, hala badagokio:		

5.10. Ukitutako ondare kultural edo historikoa

Ba al dago katalogatutako ondare elementurik?	BAI	EZ
Elementuen identifikazioa	Katalogo mota	Sailkapena
		Kontserbazio neurriak eta jarraitbideak:

5.11. Basoko suteak izateko arriskuak

Sute arrisku handikotzat hartzen den eremua	BAI*	EZ
---	------	----

* Aurreko taulan "BAI" zehaztu baduzu, hurrengo taula bete behariko duzu; bestela ez da beharrekia izango. Foru Dekretu hau onartzeko orduan, Arabako Lurralde Historikoak ez du adierazita sute arrisku handikotzat jotzen den eremurik.

Ba al dago suteen kontra babesteko neurririk?	BAI	EZ
Aplikatzeko al dira suteen kontra babesteko neurriak?	BAI	EZ
Oharrak:		

6. ANTOLAMENDUJAREN EGITURA

JU	IU	ERABILERA	Espezie nagusia	Landaketa urtea	Benetako Azal. (ha)	Katastro azal. (ha)

Ahal den neurrian, jarduketa unitateak ikusteko moduko irudia txertatuko da.

7. JARDUKETA UNITATEEN DESKRIBAPENA

Jarduketa unitateen deskribapen-fitxa. Jarduketa unitateen daturik garrantzitsuenak deskribatuko dira eta hori baso egoerari eta baso erabilera zuhaizduna duten inbentario unitateen planifikazioari buruzko datuekin osatuko da.

Jarduketa unitatea:					Azalera (ha):				
Inbentario unitatea	Ingurua	Udale.	Pol.	Lurzatia	Azpilurzatia/Esparrua	Espezie nagusia	Landaketa urtea	Benetako azal. (ha)	Katastroko azal. (ha)

Ahal den neurrian, jarduketa unitateen barruan dauden inbentario unitateak ikusteko moduko irudia txertatuko da.

ENB	BAI	EZ	Oharrak:
N2000S	BAI	EZ	Oharrak:
EPM	BAI	EZ	Oharrak:

7.2. Datu fisiografikoak

Gutxieneko kota (m)	Gehieneko kota (m)	Batez besteko kota (m)
Gutxieneko aldapa (%)	Gehieneko aldapa (%)	Batez besteko aldapa (%)
%30etik beherako batez besteko aldapa duen azalera kopurua		
% 30 eta 45 arteko batez besteko aldapa duen azalera kopurua		
%60tik gorako batez besteko aldapa duen azalera kopurua		
Orientazio nagusia		Gutxi gorabehera hartzen duen kopurua (%)
Oharrak		

7.3. Lurzorua

Litologia	Deskribapena:
Zona kalteberen azalera (ha)	Higadura ebidentziak:
Lurzoruaren ezaugarriak	

7.4. Basoaren egoera

Fitxa bat erantsiko da baso erabilera zuhaizdun nagusia duen inbentario unitate bakoitzeko, jarraian ageri den informazioarekin.

<i>Inbentario unitatea</i>

Masaren egitura	Erregularra	Erdierregularra	Irregularra
Tratamendua	Baso garaia	Baso ertaina	Basobera
Inbentarioaren metodoa			
Unitatearen baso historiaren aipamen			

7.4.1. Basoko inbentarioa
7.4.1.1. Izakinak

Especiea:											
Tipologia:											
Landaketa urtea:											
Azalera (ha) :											
Dentsitatea (oinak/ha)	Dentsitatea guztira (oinak)	Ømin (cm)	Ømax (cm)	EB (m ² /ha)	BBgaraiera (m)	Garaiera nagusia (m)	Mota/kaltatea	Ekoi-zen taulak	Egur. bol (m ³ /ha)	Bol. Guztira* (m ³ /ha)	Bol. Guztira* (m ³)

Oharra: Tipologia (S: baso garaia, hazirik edo landaketatik sortutako oinak, C: basobera, ugalketa begetatibotik sortutako oinak, esate baterako sustrai kirnuak eta T: zuhaitz motzak, basobera mota (zutoinaren zatia errespetatzen zen baina adarrak moztzen ziren, Ømin (diametro minimoa), Ømax (diametro maximoa), EB (eremu basimetrikoa), BBgaraiera (batez besteko garaiera), Garaiera nagusia, Egur. Bol. (egur bolumena) eta Bol. guztira (gutizko bolumena).

*Gutizko bolumenak karbono finkatua aurreikusteko beharrezko gutizko izakinaren berri ematen du.

7.4.1.2. Oin txikien birsorkuntza (diametroa < 7,5 cm)

Especiea	Jatorria	Batez besteko garaiera	EEF	Kontserbazio egoera

Oharra: Jatorria (hazia, anduia, landaketa), batez besteko garaiera (batez besteko garaiera metroetan), EEF (edukiera estaliko frakzioa %etan), egoera (kontserbazio egoera ona edo txarra).

7.4.1.3. Baso estalduraren egoera

Kalteek ukitutako baso estaldura ("EZ" izanez gero, gainerako eremuak bete behariko dira)	BAI	EZ
Eragileak: elurra, haizea, txingorra, izurriteak, gaixotasunak, sutea, fauna...	Kalte mota (defoliazioa, indarra galdu izana, enborra galdu izana...)	Eragin maila
		Txikia Ertaina Handia

Oharra: Txikia: ukipena < %10 oin guztien edo azalera osoaren aldean; Ertaina: %10-30 artekoa; Handia: > %30.

7.4.1.4. Egur hila

Egun hilaren existentziaren beharra eta helburuetara egokitzea:					
Espezia	Tipologia	Oinean hildako egurraren %	Etzanda hildako egurraren %		
Datua honela eskuratu dira:		Inbentarioa	Aurreikuspena eginda		Bestelako bideak erabiliz

7.5. Plangintza

Helburu nagusia
Gaur egungo baso espeziea
Etorbizuneko baso espeziea
Aurreikusitako txanda
Birsorkuntza txanda
Masaren egitura
Tratamendua
Antolamendu metodoa

Espezia	Jarduketa urtea	IU	Azal. (ha)	Jarduketa	Oharra

Gutxienez plana indarrean egon bitartean aurrera eramango diren jarduketak zehaztuko dira.

Egurrezkoak ez diren aprobetxamendu aurrekusiak. Jabeak merkaturatuz gero, unitateak edo balioa adieraziko dira

8. BESTELAKO OHAR INTERESGARRIAK

JU	Mota	Oharra
----	------	--------

9. JARRAIPENA BKIPT-EN INDARRALDIAN ZEHAR**9.1. Jardueta, sarrera eta gastuen jarraipen taula**

Planaren urtea	JU	IU	Jarduketa		Jarduera mota	Egindakoa		Balantzea		Oharrak
			BAI	EZ		BAI	EZ	Gastuak	Sarrerak	

9.2. Kudeaketa jarduerak egin bitartean izandako istripu larriak. Lan segurtasun eta osasuna.

Urtea	Istripu mota

II. ERANSKINA Baso Kudeaketa Iraunkorreko Plan Soiletako edukiak (BKIPS)**1. DATU OROKORRAK**

1.1. Plana prestatu duen teknikari egilearen datuak

1.2. Planaren titularraren datuak

1.3. Planaren jabeen datuak

2. KUDEAKETA HELBURUAK**3. KUDEAKETA PLANA OSATZEN DUTEN BESTELAKO AGIRIAK****4. LEGEZKO EGOERA**

4.1. Titulartasun mota

4.2. Katastro datuak

4.3. Enklabeak, zortasunak eta okupazioak

5. BASO EGOERA

5.1. Baso datuak

5.2. Klima

5.3. Orografia eta luraren konfigurazioa

5.4. Hidrografia eta ibarbasoa

5.5. Lurzoruak

5.6. Babes figurak

5.7. Babestutako flora eta fauna espezieak

5.7.1. Mehatxatutako flora espezieak

5.7.2. Babestutako fauna espezieak

5.8. Aisialdi, kultura eta espiritu balioak eta zuhaitz nabarenak

5.8.1. Aisialdi balioak

5.8.2. Kultura eta espiritu balioak

5.8.3. Zuhaitz nabarmenak

5.9. Abeltzaintza jarduerak

6. PLANIFIKAZIOA

6.1. Jarduketa unitateak, helburuak eta ibilbideen hautaketa

6.2. Ukitutako baso ibilbideak

6.3. Jarduketan egutegia BKIPS indarrean egon bitartean

7. BESTELAKO OHAR INTERESGARRIAK**8. JARRAIPENA BKIPS-EN INDARRALDIAN ZEHAR**

8.1. Jarduketa, sarrera eta gastuen jarraipen taula

8.2. Istripuen erregistroa

1. DATU OROKORRAK

1.1. Plana prestatu duen teknikari egilearen datuak

Izena eta abizenak
Enpresaren izena
Lanbide titulazioa
Elkargoko kide zenbakia
Posta elektronikoa
Helbidea
Sinadura

1.2. Planaren titularren datuak

TITULARRA	Erabakiak hartzeaz eta baso kudeaketa eta ustiapeneko exekuzioak aurrera eramateaz arduratzen den pertsona. Titularra dela egiaztatu beharko da agiri bidez (ikus 4.2.b atala)		
Izena eta abizenak/sozietatearen izena			
IFZ / NAN	Nekazaritza ustiapeneko kodea		
Bizilekuaren helbidea	Telefonia		
Posta kodea	Udalerria/Probintzia		
Posta elektronikoa			
Sinadura			

Sinatzaileak Baso Kudeaketa Iraunkorreko Plan Soila onartzen du eta jarduketan eta intzidentzien jarraipen eranskina behar bezala betetzeko konpromisoa hartzen du.

Halaber, "Euskal Autonomia Erkidego mailan baso kudeaketa iraunkorreko adierazle" en azterlanean edo ondoren onar daitekeen eta aurreko hori ordeztzen duen bestelako agiriren batean jasotako irizpideei jarraitzeko konpromisoa hartzen du.

1.3. Jabeen datuak

JABEA*	Erregistro datuen edo, halakoen ezean, katastrokoen arabera lurren jabea den pertsona. Jabea dela egiaztatatu beharko da agiri bidez (ikus 4.2.b atala)		
Jabetza zenb.*	IFZ / NAN		
Izena eta abizenak/sozietatearen izena			
Bizilekuaren helbidea		Telefonoa	
Posta kodea		Udalerria/Probintzia	
Posta elektronikoa			

*Jabe desberdinen kopurua adina taula bete behar dira.

2. KUDEAKETA HELBURUAK

--

3. KUDEAKETA PLANA OSATZEN DUTEN BESTELAKO AGIRIAK

--

Atal honetan kudeaketa plana osatzen duten gainerako agiriak aipatzen dira, adibidez "Euskal Autonomia Erkidego mailan Baso Kudeaketako Adierazleak eta Baso Ibilbideak. (Erregio edo Lurraldekoak)", eskualdeko azterlan sozio-ekonomikoa...

4. LEGEZKO EGOERA

Finka jarduketa unitateetan edo azaleretan banatuko da eta horietan modu homogeneoan jardun ahalko da. Katastro eta jarduketa unitateen arteko korrespondentzia islatuko da, katastroaren finko grafiiko deskribatzaileak eta jabetza erregistroaren informazio ohar solia erantsiz. Korrespondentzia horretan edozein alderdi azpimarragarri adieraziko da, azalaretan, titularitatean eta abarretan izan daitezkeen desadostasunei dagokienez, egoera hori justifikatzeko egokitzat jotzen den dokumentazioa erantsiz (ikus 4,2.c atala).

4.1. Titulartasun mota

Titulartasun mota:	Banakakoa	Taldea	Publikoa, sailkatu gabekoa	EPM zk.

4.2. Katastro datuak

JU	IU	Finkaren izena/Ingurua	Lurralde Historikoa	Udalerria	Poligonoa	Lurzatia	Azp/Esp	Benetako Azal. (ha)

4.3. Enklabeak, zortasunak eta okupazioak

--

5. BASO EGOERA

5.1. Baso datuak

JU-IU	Gaur egungo espeziea	Erabilera	Inbentarioaren metodoa	Landaketa urtea	Katastro azal. (ha)	Garai. nag (m)	Oin kop/ha	Egur. bol (m ³ /ha)

Oharra: JU-IU (jarduketa unitatea eta inbentario unitatea), Baso azal. (baso azalera), garai. nag. (garaiera nagusia) eta egur. bol. (egur bolumena).

5.2. Klima

JU	Euria, urteko batez bestekoa (mm)	Batez besteko T. (°C)

Oharra: JU (jarduketa unitateak), euria urteko batez bestekoa (batezko besteko euria, estazioan), Batez Besteko T. (batez besteko tenperatura gradu zentigradoetan).

5.3. Orografia eta luraren konfigurazioa

JU	Batez besteko garaiera (m)	Garaiera maximoa (m)	Garaiera minimoa (m)	Batez besteko aldapa (%)	Orientazioa

5.4. Hidrografia eta ibarbasoa

JU	Arroa	Azpiarroa	Ibarreko basoa	Azal.* (ha)	Oharrak (ibaia, erreka eta ibarreko basoak)

*Ibarreko basoen azalera hektareetan.

5.5. Lurzorua

JU	Litologia	Deskribapena	Lurzorua ezaugarriak (azalekoa, sakona...)

5.6. Babes figurak

Interes komunitarioko habitatak, habitatei buruzko zuzentzarauaren arabera		BAI		EZ
Habitataren deskribapena				
Zaintzera bideratutako neurriak				
Babestutako natura espazioak (parke naturala, biotopo babestuak, Natura 2000 Sarea...)		BAI		EZ
Indarreko planifikazio tresna (BNAP, EKPZ eta antzekoak)				
Planaren jarduketak	ESNen arautegira eta helburuetara egokitzea			

5.7. Babestutako flora eta fauna espezieak

5.7.1. Mehatxatutako flora espezieak

Mehatxatutako flora espezieak*		BAI		EZ
Espezieen identifikazioa				
Kudeaketa plana eta arautegi aplikagarria				
Kudeaketa eta kontserbazio neurri aplikagarriak				

5.7.2. Babestutako fauna espezieak

Mehatxatutako fauna espezieak*		BAI		EZ
Espezieen identifikazioa				
Kudeaketa plana eta arautegi aplikagarria				
Kudeaketa eta kontserbazio neurri aplikagarriak				

*Mehatxatutako espezieetat jotzen dira Mehatxatutako Espezieen Euskal Katalogoan sartutakoak, bai eta Habitategi buruzko Zuzentzarauaren II. eranskinean jasotakoak ere. Mehatxatutako espezieen edo interes komunitarioko habitaten presentziak behartuko du jarduketara unitate bakoitzean duten presentzia zehaztera eta hurrengo atala betetzera (presentziak nola eragiten dion unitatearen kudeaketari eta baso lanen burutzapenari).

5.8. Aisialdi, kultura eta espiritu balioak eta zuhaitz nabarmenak

5.8.1. Aisialdi balioak

Ba al dago aisialdi baliorik (aisialdi eremuak, mendi bideak, bide berdeak...)?	BAI	EZ
Aisialdi balioen identifikazioa (aisialdi eremuak, mendi bideak, bide berdeak...):		
Kokalekua:		
Kudeaketa neurri aplikagarriak, hala badagokio:		

5.8.2. Kultura eta espiritu balioak

Ba al dago katalogatutako ondare elementurik?	BAI	EZ
Katalogatutako ondare elementuen identifikazioa:		
Kokalekua:		
Katalogo mota:		
Sailkapena:		
Beharrezkotzat joz gero, kontserbaziorako neurriak eta jarraibideak:		

5.8.3. Zuhaitz nabarmenak

Zuhaitz nabarmenak	BAI	EZ
Espezieak eta kokapena		

5.9. Abeltzaintza jarduerak

Ba al dago abeltzaintza jarduerarik planaren lurretan?	BAI	EZ
Titular Kudeatzailea abeltzaintza jardueraren arduraduna da:	BAI	EZ
Oharrak:		

6. PLANIFIKAZIOA**6.1. Jarduketa unitateak, helburuak eta ibilbideen hautaketa**

JU	Helburu nagusia	IU*	Espeziea	Landaketa urtea	Baso ibilbidea

*"Guztiak" zehazten direnean, horrek jarduketa unitateak osatzen dituzten inbentario unitate guztiei eragiten die.

6.2. Ukitutako baso ibilbideak

Ibilbidea	Deskribapena

6.3. Jarduketan egutegia BKIPS indarrean egon bitartean

Urtea	JU*	Jarduketa	Araua

* Inbentario unitatea zehaztu ezean, jarduketek men egingo diote jarduketa unitate osoari.

7. BESTELAKO OHAR INTERESGARRIAK

JU	Oharra

Baso Kudeaketa Iraunkorreko Plan Soileko jarduketa unitateei buruz berariazko aipamenik ez badago, ez zale oharrak jarri behar.

8. JARRAIPENA BKIPS-EN INDARRALDIAN ZEHAR**8.1. Jarduketa, sarrera eta gastuen jarraipen taula**

Planaren urtea	JU	IU	Jarduketa		Jarduera mota	Egindakoa		Balantzea		Oharrak
			BAI	EZ		BAI	EZ	Gastuak	Sarrerak	

8.2. Istripu erregistroa

Urtea	Istripu mota

III. ERANSKINA Baso Kudeaketa Iraunkorreko Plan Teknikoak (BKIPT) eta Baso Kudeaketa Iraunkorreko Plan Soilak (BKIPS) aurkezteko arauak

Aurkeztu beharreko informazioa honakoa izango da:

Euskarri fisikoa:

- Baso Kudeaketa Iraunkorreko Plan Teknikoaren edo Baso Kudeaketa Iraunkorreko Plan Soilaren agiri osoa paperean, DIN A4 formatuan, planoak izan ezik; haren tamaina mendi azaleraren hedapenaren arabera izango da.

- Baso Kudeaketa Iraunkorreko jarraibideak, behar bezala sinatuta.

- Planeko titularraren NANren fotokopia.

- Jabeari titularrari laga diola ziurtatzen duen egiaztagiria.

- BKIPTen katastroko deskripzio fitxak eta BKIPSen katastroko deskripzio fitxak eta fitxa grafikoak.

- Jabetza Erregistroaren informazio ohar soilak.

Euskarri digitala:

Kopia bat aurkezteko aukera izango da euskarri elektronikoan:

- Baso Kudeaketa Iraunkorreko Plan Teknikoaren edo Baso Kudeaketa Iraunkorreko Plan Soilaren kopia "pdf" formatuan.

- "Shape" formatuan eta "poligono" motan georeferentziatutako kartografia digitala, ETRS 89 erreferentzia sistemari dagokiona.

Dokumentazio hau eskuragarri egongo da Basalde Erakunde Eskatzaile Erregionalak kudeatutako Gestfore plataforman, handik jaitsi ahal izateko. Beharrezkotzat joz gero, Mendi Zerbitzuak informazio hori zuzenean eskatu ahalko dio planaren egileari edo titularri euskarri digitalean.